# BESTELAKO XEDAPENAK

## EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

## 1381

*EBAZPENA, 2015eko martxoaren 10ekoa, Industriako sailburuordearena, zeinen bidez argitara ematen baita Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuak 2014ko martxoaren 26ko Aginduak araututako laguntzak emateko deialdia –2014ko ekitaldia–. Agindu horrek «Global Training» beka-programa arautu zuen, goi-mailako lanbide-prestakuntza edo unibertsitate-titulazioa duten gazteek atzerriko enpresa eta erakundeetan praktikak egin ahal ditzaten.*

Diru-laguntza publikoak emateko orduan ezinbestean bete behar da publizitatearen printzipioa. Hori dela eta, laguntza horien onuradunei banan-banan egin beharreko jakinarazpena egin zaienez, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dugu orain onuradunen zerrenda. Hori guztia Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuak 2014ko martxoaren 26an emandako Aginduan aurreikusitako laguntzei dagokienez, agindu horretan arautu baitzen Global Training beka-programa.

Hori horrela, aurreko paragrafoan adierazitakoarekin bat etorriz, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Argitara ematea Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuak 2014ko martxoaren 26ko Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradun izan direnen zerrenda, eranskinean ageri dena (2014ko ekitaldia). Agindu horren bidez, Global Training beka-programa arautu zen, goi-mailako lanbide-prestakuntza edo unibertsitate-titulazioa duten gazteek atzerriko enpresa eta erakundeetan praktikak egin ahal ditzaten.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko martxoaren 10a.

Industriako sailburuordea,
JUAN IGNACIO GARCÍA DE MOTILOA UBIS.

ERANSKINA

2014KO GLOBAL TRAINING BEKAK

| Erakundearen Izena | Beka kopurua | Emandako zenbatekoa |
|---|---|---|
| Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea | 80 | 691.889,60 |
| Donostiako Sustapena – Garapen | 80 | 691.889,60 |
| Novia Salcedo Fundazioa | 80 | 691.889,60 |
| Hetel – Confebask | 65 | 562.160,30 |
| EuskoGanberak | 65 | 562.160,30 |